

AURKIBIDEA

Urtarrilaren 14an, URTEAN ZEHARREKO II. IGANDEA.....	4
Urtarrilaren 21ean, URTEAN ZEHARREKO III. IGANDEA.....	12
Urtarrilaren 28an, URTEAN ZEHARREKO IV. IGANDEA	19
Otsailaren 4an, URTEAN ZEHARREKO V. IGANDEA	26
Otsailaren 11n, URTEAN ZEHARREKO VI. IGANDEA	33

Urtarrilaren 14an
URTEAN ZEHARREKO II. IGANDEA

Haur Misiolarien Jardunaldia

Agurra

Jaunaren grazia eta bakea izan bitez zuekin.

Sarrerako oharpena

Urtean Zeharreko bigarren igandea dugu gaurkoa. Eguberrialdia burututa, bere bizitzako misterioak agertzen dizkigun Jaunaren urratsei jarraitzen diegu. Beharrezkoa dugu bere Hitzza eta Eukaristiako Ogia, eguneroko lanean kemenez jarduteko.

«Naizena partekatzen dut» dio gaur ospatzen dugun Haur Misiolarien jardunaldiko goiburuak. Egun garrantzitsua da, hurrei oroitarazteko, beste haurrentzat misiolari izatera deituak direla, gu guztiok bezala. Izan gaitezen misiolari, gure otoitzarekin eta eskuzabaltasunarekin.

Damu-otoitza

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen:

—Jesus Jauna, Itun Berriren bitartekoa: Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Elizaren Senarra: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Adam berria, kreaio berriren lehen-semea: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahalsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 zeure ardurapean dituzu zeru-lurrak;
 entzun bihotz onez zeure herriaren otoitza
 eta eman zeure bakea gure egunotan.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoak Samueli dei egin zion bezala eta Jesusek ikasleak Bildu zituen moduan, guri ere jarraipenerako deia egiten digu. Izan gaitzela gai Jainkoren deia onartzeko eta senideengan eta aldian aldiko ezaugarrietan Bera aurkitzeko.

Lehenengo irakurgaia (*1 Sm 3, 3b-10-19*)

Samuel lehenengo liburutik

Egun haietan, Samuel lotara joana zen, Jainkoaren kutxa zegoen Jaunaren santutegian.

Jaunak dei egin zion Samueli, eta honek erantzun: «Hemen nauzu». Lasterka Elirengana joan eta esan zion Samuelek: «Hemen nauzu, dei egin baitidazu». Elik erantzun zion: «Ez dizut nik dei egin; itzuli eta egizu lo». Joan eta lotarako etzan zen.

Jaunak berriro dei egin zion Samueli. Hau jaiki eta Elirengana joan zen, esanez: «Hemen nauzu, dei egin baitidazu». Elik erantzun zion: «Ez dizut nik dei egin, seme; itzuli eta egizu lo». Samuelek ez zuen artean Jauna ezagutzen, Jaunak ez baitzion bere hitza inoiz ere adierazi.


Hirugarren aldiz dei egin zion Jaunak Samueli. Hau jaiki eta Elirengana joan zen, esanez: «Hemen nauzu, dei egin baitidazu».

Antzeman zion Elik Jauna ari zitzaioala mutikoari deika, eta esan zion Samueli: «Zoaz lotara eta, norbaitek berriro dei egiten badizu, esan: "Mintza, Jauna; zure morroi hau adi dago"». Itzuli zen Samuel bere tokira eta lotarako etzan zen.

Jaunak, hurbildurik, dei egin zion, besteetan bezala: «Samuel, Samuel!» Eta Samuelek erantzun: «Mintza, zure morroi hau adi dago».

Samuel haziz zihoan, eta Jauna berekin zuen. Ez zen Jaunaren hitz bakar bat ere bete gabe gelditu.

Erantzun-salmoa (*Sal* 40 [39], 2 eta 4ab. 7-8a. 8b-10)



He - men na - tor ni, he - men, Jau - na, e - gin de - za -
dan Zuk e - sa - na.

- ✧ Jaunagan nuen jarria itxaropen **guztia**, makurtu eta entzun du nire **oihua**. Kantu berria ipini dit **ezpainetan**, gorespen-kanta gure Jain**ko**arentzat. ✧
- ✧ Zuk ez duzu sakrifiziorik eta eskaintzarik **nahi** izan, ez erre-oparirik eta bekatuen barkamen-oparirik **eskatu**; baina belarriak ireki **diz**kidazu. Horreatik diot: «**Hemen** nauzu». ✧

✠. Hau dago nitaz liburuan idatzia: '
 egin dezadala zure nahia.
 Atsegin dut, ene Jainko, '
 barne-muinetan dut zure legea.
 Iragarri dut batzar nagusian zure justizia,
 ez ditut ezpainak itxi, ongi dakizu, Jauna. ✠.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 6, 13c-15a. 17-20)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Gorputza ez da haragikeriarako, Jaunarentzat baizik, eta Jauna gorputzarentzat. Jainkoak, Jauna piztu zuenak, piztuko gaitu gu ere bere ahalmenaz.

Ez al dakizue zuen gorputzak Kristoren atal direla? Jaunarekin elkartzen dena, espiritu bat bera egiten da harekin.

Egizue ihes haragikeriatik. Gizon-emakumeek egiten dituzten beste bekatu guztiak gorputzetik kanpora gelditzen dira; baina haragikeriazko bekatua egiten duenak bere gorputzaren aurka egiten du bekatu.

Ez al dakizue zuen gorputza Jainkoak eman dizuen eta zuengan bizi den Espiritu Santuaren tenplu dela? Beraz, ez zarete jadanik zeuenak; garesti ordainduz eskuratu zaituzte Jainkoak. Goretsazue, bada, Jainkoa zeuen gorputzaz.

Aleluia (Jn 1, 41- 17b)





∞. Mesias aurkitu dugu —hau **da**, Kristo—.
Grazia eta egia, Honen bidez **etorri** dira. ∞.

Ebanjelioa (Jn 1, 35-42)

Homiliarako argibideak

Jainkoa deika ari da. Batzuk biziera sagaratura deitzen ditu, besteak elkartean zerbitzura apaiz izatera. Beste batzuk misio egintzara. Beste batzuek ezkon bizitzara. Guztiak deitzen ditu kristau-bizitza zintzora.

Samuel gaztea profeta zerbitzua betetzera deitua ikusi dugu lehenengo irakurgaia. Egiazko testigu leialak beharrezkoak ziren Israel herriaren historiako une hartan. Eta Jainkoak Samueli dei egiten dio, bere deia entzunarazten dio.

Lehenengo ikasleei (Andresi eta Simon Pedrori) Jesusek egiten die deia. "Giza arrantzale" egingo ditu.

Jainkoak deika ari da gaur ere. Nahiz eta deituak edo erantzuten dutenak gutxiago irudituko zaizkigun behar bada. Batzuetan gauzez deitzen du (Samueli bezala). Beste batzuetan arratsalde erdian. Batzuetan Samuelen moduko gazteak deitzen ditu. Besteetan arrantzale helduagoak Andres eta Simonen modura.

Deitua izan denak, jarrera onez erantzuten du batzuetan. Hala ikusi dugu Samuelen kasuan. Halaxe egin zuen Nazaretoko Mariak ere, prestutasunez erantzunez. Eta hala erantzun diote gero ere Jesus Jaunari hainbeste gizon eta emakume leialek.

Deitua izan denari kosta egiten zaio batzuetan, baietz erantzutea; eskatutako eginkizuna zaila ikusten duelako. Badira horren etsenpluak ere Biblian zehar. Askotan Jainkoa bera ateratzen da bila. Bestetan ikaslearen bihotzean sortu da Jauna bilatzeko egarria. Beti ere Jainkoaren egintza miragarriak egiten du lan: haren ahotsa ezagutzen saiatu behar dugu.

Jainkoak bitartekoak ere baliatzen ditu, deituek bere ahotsa ezagutarazteko, bereizten laguntzeko. Joan Bataiatzailearen modura “bidea prestatzen” ari dela konturatu behar du bidelagunak. Jainkoaren presentzia indar emaleari protagonismoa emanaz.

Kristau elkarteari dagokio bitartekotza lan hori egitea. Gurasoei, katekistei, apaizari. Heziketa bidearen urrats garrantzitsua da, gazteari bere etorkizunaren planteamendua egiten laguntzea. Deia entzunaraztea. Erabakian lagundu eta argi ematen saiatzea.

Korintoko elkarte plural hartan, beharrezko ikusten zuen Paulok giza duintasunaren eta gorputzarekiko begirunearen garrantzia azpimarratzea. Hala ikusi dugu bigarren irakurgaietan.

Gure gorputza etorkizuneko piztuerara deitua dago. Bataioaz geroztik Kristoren gorputzeko atal gara eta Espiritu Santuaren bizitoki denez ez ote du merezi neurritz bizitzea jasotako dohainari dagokionez?

Askatasun hutsa gauza guztien oinarri bilakatu denean, ezinbestekoa dugu geure buruarekiko begirunea, neurria eta arrazoibidea garrantzitsuak direla azpimarratzea.

Eukaristia ospatzean, Samuelen erantzuna eta jarrera geureganatzeko aukera dugu: “mintza, Jauna, zure morroi hau entzuten dago”. Gero Jainkoaren izenean herriari hitz egingo dion profetak, “entzuten” ikasi du lehenik. Jainkoak bidali digun Maisu eta Profetak, Jesu Kristok alegia, bere bideak irakatsiko dizkigu.

Lehenengo jarrera Hari “entzutea” dugu, arretaz entzutea, bereziki Mezako lehen zatian Jainkoaren Hitza hots egitean.

Bataiatzailearen hitzekin Jesusi “Jaungoikoaren Bildotsa” deitzeak, lagun diezagula Berarengan ikusten munduaren Salbatzailea, gizadi osoaren etorkizuna bekatutik libre egiten duena, lokarri guztiak askatzera etorri zaiguna.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok egiogun otoitza Jaunari, eta eska diezaiogun entzun ditzala errukiz gure otoitzak:

- Elizaren alde, bakean eta batasunean biziz, Jainkoaren ezaugarri izan dadila mundu zabalean. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure herriko eta herrialde guztietako agintarien alde, Jainko gure Jaunak argi ditzala haien pentsamenduak, egiazko bakeranzko erabakiak har ditzaten beti. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bihotz-berritze bidean direnen alde eta bataioa hartzeko prestatzen direnen alde, Jainkoak bere errukiaren atea zabal diezazkiela eta Kristoren bizi berrian parte eman diezaiela. Eska diezaiogun Jaunari.
- Lurralde guztietako haurren alde: Jesusen berri ona aurkitzeko zoria izan dezatela, aurkituta leial bizi daitezela, eta leial izanik Haren lagun eta testigu ager daitezela guztiontzat. Eska diezaiogun Jaunari.
- Hemen gurekin ez dauden etxeko eta adiskideen alde, Jainkoak entzun ditzala haien otoitzak ere eta bere asmoetan lagun diezaiela. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko ahalguztiduna, Kristo, herri guztien argia den pazko-bildotsaren bidez, gizaki guztiak itun berriaren herria osatzera deitzen dituzu; entzun gure otoitzak eta sendotu gugan Zure Espirituaren indarrez bataioaren grazia, gure bizitzak Ebanjelioaren poza adierazi dezan. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

Diru-bilketa egitean

Oparigaiak dakartzagu aldarera, Jesus Eukaristian presente egin dadin. Geure eskuzabaltasuna ere orain agertuko dugu, diru-bilketa egitean mundu osoko haur misiolarien eguna dela gogoratuz.

Oparigaien gaineko otoitza

Egizu, Jauna, parte har dezagula sarri sakramentu honetan, gure erospena gertaberritzen baita Jaunaren opariaren oroigarri hau ospatzen dugun bakoitzean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isur iezaguzu, Jauna, zeure maitasun-espirtua, zeruko ogi bat beraz janaritu gaituzunok zeure maitasunean bat egin gaitzazun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

Urtarrilaren 21ean
URTEAN ZEHARREKO III. IGANDEA
Jainkoaren Hitzaren igandea

Agurra

Berri on eta pozbide dugun Jesus Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Ongi etorri, senide maiteok, Jaunak igandero eskaintzen digun otordu santura. “Jainkoaren Hitzaren igandea” eratu zuen Frantzisko Aita Santuak Urtean Zeharreko hirugarren igande honetarako. Kristo Piztuak, gizon egin den hitzak, gure bizitzak argitzen dituela gogoraraziz eta bere izenean biltzen garenon artean beti presente dagoela kontuan izan dezagun. Bidera ateratzen zaigu; bere Hitzak sutu ditzala gure bihotzak eta bultza gaitzala Jainkoaren maitasunaren berri on eta pozgarria iragartzera.

Damu-otoitza

Bekatari garela aitortuz, eska diezaiogun barkamena Jainko errukitsuari konfiantza osoz.

—Jesus Jauna, Aitagana gar**ra**matzan bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, herri guztiak argitzen **di**tuen egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, mundua eraberr**it**zen duen bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltzua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zuzendu zeure gogara gure jarduera,
zure Seme maitearen izenean fruitu on ugari eman dezagun.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoak herri guztiak maite ditu. Jainkoaren Salbamena ez da Israel herrira mugatzen, gero eta zabalagoa baita Kristoren agerpenaz. Bihotz berri batek eta fede sendoak dakar egiazko salbamena.

Lehenengo irakurgaia (Jon 3, 1-5. 10)

Jonasen Profezia liburutik

Jaunak Jonasi hitz egin eta esan zion: «Ea, zoaz Ninive hiri handira, eta aldarrika ezazu han Nik ematen dizudan mezua».

Ninivera joan zen Jonas, Jaunak agindu bezala. Ninive hiri izugarri handia zen; hiru eguneko bidea zuen alderik alde. Sartu zen Jonas hirian eta egun bateko bidea egin zuen, mezu hau hots eginez: «Berrogei egunen buruan, Ninive xehatua izango da».

Sinetsi zioten ninivetarrek Jainkoari eta barau-deia zabaldu zuten eta denak, handi eta txiki, dolu-jantziz estali ziren.

Ikusi zuen Jainkoak ninivetarrek egin zutena eta beren bide okerretik itzuli zirela, eta damutu egin zen haiei egindako mehatxuaz, eta ez zuen bete.

Erantzun-salmoa (*Sal* 25 [24], 4-5b. 6 eta 7cd. 8-9)

Zu zai-tut, Jau - na, ni-re ar - gi, zu - rebi - de-
ak e - ra - ku - tsi.

- ✠. Azaldu niri, Jauna, zeure bideak,
erakutsi zeure bidexkak.
Gida nazazu zeure leialtasunean, eta irakatsi,
Zu baitzara nire Jainko salbatzailea. ✠.
- ✠. Izan gogoan, Jauna, zeure gupida eta maitasuna,
betidanikoak baitira.
Gogoratu nitaz zeure maitasunean,
zeure ontasunari dagokionez, Jauna. ✠.
- ✠. Ona eta zuzena da Jauna,
bidea erakusten die bekatariiei.
Apalak zuzenbidez daramatza,
bere bidea erakusten die appalei. ✠.

Bigarren irakurgaia (*1 Ko* 7, 29-31)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Epea laburtu egin dela diotsuet. Beraz, gelditzen zaigun denboran, ezkonduak bizi bitez ezkondurik ez baleude bezala; negar dagitenak, negar egingo ez balute bezala; pozik daudenak, pozik ez baleude bezala; erosten dutenak, ezer ez balute bezala,

eta mundu honetako gauzez baliatzen direnak, baliatuko ez balira bezala; izan ere, mundu hau, oraingo bere itxuran, desagertzeaz dago.

Aleluia (Mt 1, 15)



∞. Hurbil da Jainkoaren erregetza, **dio** Jaunak:
bihotz-berri zaitzte eta sinetsi **Berri** Ona. ∞.

Ebanjelioa (Mk 1, 14-20)

Homiliarako argibideak

Joan atxilotu ondoren, Jesus Galileara hurbildu zen Jainkoaren Ebanjelioa predikatuz, eta honela zioen: «Garaia bete da eta Jainkoaren Erreinua gertu dago; bihotz-berri zaitzte». Aurreiritziak berehala kendu behar ditugu. Lehenik: bihotz-berritzea ez dagokie sinestunak ez direnei bakarrik, edo «urrundutzat» hartzen ditugunei soilik; denok izan behar dugu gu konbertsio beharra; bigarrenik: bihotz-berritzea, berez ebanjelikoa den zentzuan ulertuta, ez da bizitzeari uko egitea, esfortzua eta tristura hutsa, baizik eta askatasuna eta poza; ez da egoera atzera egitea, aurrera egitea baizik.

Jesusen aurretik, «atzera itzultzea» esan nahi zuen beti (hebrear, shub hitzak norabidea alderantzikatzea esan nahi du, norberaren pausoen gainetik itzultzea). Bizitzaren puntu batean «bidetik kanpo» egoteaz konturatzen denaren ekintza adierazten zuen;

orduan, gelditu egiten da, birplanteamendua egiten du; jarrera aldatzea eta legea betetzera itzultzea erabakitzen du, eta Jainkoarekiko itunera berriz itzultzea. Benetako norabide-aldaketa egiten du, «U-ko biraketa». Bihotz-berritzeak, kasu honetan, esanahi morala du; ohiturak aldatzea, norberaren bizitza aldatzea.

Jesusen ezpainetan esanahi hori aldatu egiten da. Bihotz-berritzeak ez du esan nahi antzinako itunera eta legea betetzera itzuli behar denik; aitzitik, aurrerapauso bat eman eta Erreinuan murgildu behar dela esan nahi du, Jainkoaren ekimen aske eta subiranoaren bidez gizakiei doan etorri zaien salbazioari heltzea.

Bihotz-berritzea eta salbamena lekuz trukatu dira. Jada ez dago, lehenen bezala, lehenengo bihotz-berritzea eta sari bezala salbamena. Baizik eta lehenengo salbamena, Jainkoaren dohain bezala eta gero bihotz-berritzea, esker oneko erantzun modura. Hori da «berri on pozgarria», bihotz-berritzearen alaitasuna. Jainkoak ez du espero gizakiak lehen pausoa ematerik, bizitza alda dezan, lan onak egin ditzan, salbamena bere ahaleginen ordaina izan dadin. Ez; lehenengo Jainkoaren grazia dago, Jainkoaren ekimena. Horretan, kristautasuna beste edozein erlijiotatik bereizten da: lehenengo dohainaren berri ematen da eta gero bihotz-berritzeko deia luzatzen; ez da hasten legearekin, graziarekin baizik.

«Bihotz berritu eta sinetsi»: esaldi horrek ez du esan nahi, beraz, bi gauza desberdin eta elkarren segidakoak, baizik eta funtsezko ekintza bera: Bihotz-berritu eta sinetsi! Sinetsiz, bihotz-berritu! Fedea Erreinuan sartzeko atea da. Esan izan balitz: atea errugabetasuna da, atea agindu guztiak zehatz-mehatz betetzea da, atea pazientzia da, garbitasuna, batek esan lezake: ez da niretzat; ni ez naiz garbia, ez dut bertuterik. Baina esaten zaigu: atea fedea da. Inori ez zaio ezinezkoa sinestea, Jainkoak aske eta adimentsu sortu gaituelako, hain zuzen ere, Harengan fede-egintza ahalbidetzeko.

Fedeak aurpegi desberdinak ditu: adimenarekin sinestea da bat eta bihotzeko konfiantzarekin sinestea bestea. Gure kasuan, Jainkoarengandik guretzat zer bait hartzea. San Bernardok geureganatu aditza erabiltzen du: «Nik, nik neuk lortu ezin dudana, Kristoren saihetsetik neureganatzen dut!».

«Bihotz-berritza eta sinestea» xalotasunez Jainkoarengana hurbiltzea da. Merezi gabe ere, Erreinua dohain bezala hartzea. Eta Jainkoak berak gonbidatzen gaitu horretara; eta pozik ikusten gaitu bere bidera gerturatzeko.

«Bihotz-berritu!» ez da, mehatxu bat, tristatu eta burua makurtuta ibiltzera behartzen duen gauza bat, eta, horregatik, ahal den beranduen egin beharrekoa. Alderantziz, eskaintza sinestezina da, askatasunerako eta poztasunerako gonbita. Garai guztietako gizakiei Jesusek ematen dien «berri ona» da.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz senideok, Jainko Aita errukiarrari, bere eskuetan baikaude, eta eska diezaiogun uste onez entzun ditzala bere herriaren otoitzak:

- Jainkoaren Elizaren alde: egunez egun lehia handiagoaz bila dezala bere Jaunaren aurpegia eta bere kide guztiak saia daitezela bihotz berriz bizitzen. Eska diezaiogun Jaunari.
- Nazio guztietako arduradunen alde: gogoz eta kemenez lan egin dezatela guztiontzat bakea eta ongizatea bilatuz, denongan bakea eta justizia nagusitu daitezen. Eska diezaiogun Jaunari.
- Elizan Jainkoaren Hitza iragartzeko ardura duten guztien alde: irakasle, artzain, katekista eta kristau guztiok gaurkotu dezagula Jainkoaren Hitza, entzule guztien bizitzarako argi izan dadin. Eska diezaiogun Jaunari.

—Hemen bilduak gauden guztion alde: Jainkoak fedean sendo irauteko eta elkarren maitasunean hazteko grazia eman diezagula. Eska diezaiegun Jaunari.

Betiereko Hitza den Kristorengan, Zure hitzaren betea eman diguzun Jauna, entzun Zure Elizaren otoitza eta egizu suma dezagula bihotz-berritzeko eta Ebanjeliora osoki eskaintzeko beharra, gure bizitzaz ager diezaiegun zalantzaz edo urrunduta bizi direnei Jesu Kristo Zure Seme eta gure Jauna dela gizakien egiazko Salbatzailea. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Begira, Jauna, begi onez gure eskaintzari,
eta sagara ezazu zeure Espirituaren indarrez,
guretzat salbamen-sakramentu gerta dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jainko ahalguztiduna,
bizi berriaren grazia eman diguzu;
egizu, bizi berri honek beti poztu gaitzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Urtarrilaren 28an
URTEAN ZEHARREKO IV. IGANDEA

Agurra

Jauna zuekin.

Sarrerako oharpena

Jesusen irakaspenek beti txunditzen gaituzte: bereziak dira eta era berezian emanak. Hausnarrean jardun eta bereganatuak ditu: bizitakoak dira. Kristau izatea ez baita ikasi bakarrik egiten, bizi, esperimentatu baizik. Eta ebanjelizatzea testigantzez eta konbentzimenduz egiten du, beraz, Jesusek: istilurik gabe, apal-apal, proposatuz, aurkeztuz, eta dohain bereziz zainetaraino bereganatuz.

Jesusen biziera horretan bizi nahi dugu igandez-igande bere mahaian biltzen garen guztiok ere.

Damu-otoitza

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen dugu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharrean garela, bekatuak hilik bizi berrira piztu gaitzen.

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren **bet**ea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behar**tsu** egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera **et**orri zarena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. **℟**. Amen.

Otoitza

Jainko gure Jauna,
 egizu, gur zaitzagula bihotz-bihotzez
 eta maita ditzagula gizon-emakume guztiak egiazko maitasunez.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren Hitzaren oihartzun da profeta, badira, ordea, profeta leialak edota Jainkoaren dohainak harrokeriaz darabiltzaten sasiprofetak ere. Jesusengan ikusten dugu, leialtasunetik salbamen ezaugarriak ernetzen direla. Entzun dezagun arretaz

Lehenengo irakurgaia (Dt 18, 15-20)

Deuteronomioa liburutik

Moises honela mintzatu zitzaion Israel herriari: «Jaunak zuen Jainkoak ni bezalako profeta sortuko du zuen artetik, herritarren artetik. Entzun berari! Horixe da, Horeb mendian bildurik zeundetela, Jaunari zeuen Jainkoari eskatu zeniotena: “Ez dugu Jaunaren geure Jainkoaren ahotsa berriro entzun nahi, ezta sute handi hori berriro ikusi nahi ere, hil egingo baikara bestela”.

Orduan, Jaunak esan zidan: “Ongi deritzot herriak esandakoari. Zu bezalako profeta sorraraziko dut herritarren artetik; neure hitzak ezarriko dizkiot ahoan eta Nik agindutakoa esango die. Profetak nire izenean adieraziko dituen hitzak onartuko ez dituenari Nik eskatuko dizkiot kontuak. Baina Nik agindu gabeko hitza nire izenean adieraztera ausartzen den profeta edota jainko arrotzen izenean hitz egiten duena hil egingo dute”.

Erantzun-salmoa (95 [94], 1-2. 6-7c. 7d-9)

En-tzun-go al du-zu-e gaur Jau-na - ren min - tzo -

a: "Ez go-gor - tu zu-en bi-ho - tza".

- ∞. Zatozte, degiogun poz-oihu **J**auhari,
 poz-irrintzi, salbatzen gaituen hark**k**aitzari.
 Aurkez gakizkion eskerrak **e**manez,
 degiogun jai txaloka eta **k**antari. R/.
- ∞. Zatozte, gurtu dezagun ahus**p**ezturik,
 belaunika gaitezen egin gaituen Jaunaren **a**urrean.
 Bera baita gure Jainkoa, '
 eta gu hark larraturiko **h**erria,
 haren zainpeko art**a**ldea. R/.
- ∞. Entzungo ahal duzue gaur haren **a**hotsa:
 «Ez gogortu bihotza Meriban **b**ezala,
 Masako egunean basamortuan bezala, '
 tentatu egin baininduten zuen gur**a**soek,
 probatu, Nik eginak ikusi arren». R/.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 7, 32-35)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik
 Senideok: Zuek kezkarik gabe bidezta nahi nuke. Gizaseme
 ezkongabea Jaunaren gauzez kezkatzen da, Jaunari nola atsegin
 emango; ezkondua, berriz, munduko gauzez kezkatzen da,

emazteari nola atsegin emango, eta bere baitan zatitua dago. Emakume ezkongabea eta neskatxa Jaunaren gauzez kezkatzen dira, eta gorputz eta arima berari emanak bizi dira; ezkondua, berriz, munduko gauzez kezkatzen da, senarrari nola atsegin emango.

Hau zeuen onerako diotsuet, ez zuei tranpa jartzeko. Hauxe nahi dut: modu egokienean bizi zaitezte, eragozpenik gabe Jaunari atxikiak.

Aleluia (Mt 4, 16)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia

Ⲛ. Ilunpean bizi zen herriak argi handia ikusi **zuen**, herio-itzalean bizi zirenei distira egin zien **argiak**. Ⲛ.

Ebanjelioa (Mk 1, 21b-28)

Homiliarako argibideak

Jesusen hitzen sortzen duten lilurak, bere bizitza, egintza eta ezaugarriak ditu oinarri. Jesusek harridura sortu zuen ikasleengan, irakasteko eta jokatzeko zuen eragatik. Maisu desberdina zen zeharo, nahiz eta ikasi gabea izan eta maisu aipagarrien ondoan ibili ez. Bere aginpideak bere ikasbidea zuen oinarri. Jainkoa bera agertzen zuen ikasbidea baitzen Jesusena.

Profeta zen Jesus izan ere, Jainkoaren izenean hitz egiteko gaitasuna zuen pertsona. Ez zuen esan ere egin behar berak

irakatsitakoa Jainkoaren Hitza zenik, halaxe nabari baitzioten ingurukoek esan gabe ere. Bera zen Moisesek iragarritako egiazko profeta, Jainkoak bere salbamen egitasmoa iragartzeko baliatua eta herria salbatzen zuen Jainkoa bera ikusgarri egiten zuena (*Dt* 18, 15-20).

Jesusen hitzek Jainkoaren hitzak duen aginpide eta eragin bera dute. Iragartzen dutena egikaritzen duten salbamen hitzak dira. Ez zen Jainkoari buruz edo munduari buruz jarduten zen hitz bat bakarrik, baizik eta Jainkoak hitz emandako askatasuna presente egiten zuen hitz ekintzailea zen Jesusena. Mirariak egin zitzakeen pertsona zen Jesus, eta ezaugarri miragarri haiek Jainkoaren Erreinua gizakien bizitzan barneratzen eta dena aldatzen ari zela agerian jartzen zuten guztien begien aurrean.

Jainkoa errege bada, inork ez dezake Bere boterea bereganatu. Jainkoa errege bada kreaziokoan kreazioko hura egia bihurtzen da: "ikusitako Jainkoak dena ona zela". Jesusek bere egiten du ongiaren alde eginez gaitza menderatzeko eginbeharra. Gaitz ororen kontra egiten du, gaixotasunaren eta miseriaren aurka. Pertsona bere osoan sendatu nahi du, era askotako gaitzek zauritzen baikaituzte (*Mk* 1,21-28)

Sufrimenak eta gaitzak munduan darraite. Gaitz fisikoak eta gaixotasunak gero eta gehiago sendatzen dira. Sufrimen psikikoak eta moralak, berriz, gero eta handiagoak direla dirudi. Ez gehiago direlako, bai ordea gizakia gero eta gehiago konturatzen delako ere duintasunari eragindako erasoekin.

Gaitzaren indarra areagotzen ari dela eta horren aurka ezin dugula ezer egin iruditzen zaigu inoiz. Kristauok, ordea, badakigu gaitza etsai gogorra baldin bada, are indartsuagoa dela Jesus. Berak, gaitz oro gaitzitu du bere heriotzarekin eta ez gaitu eskutik uzten gaitzaren aurkako gure eguneroko borrokan. Gure bizitza osoak

Kristoren iragarpen edo anuntzio izan behar du munduaren erdian. Eukaristian askatzen gaitu Jesusek, eta bere gorputz eta odolez janaritzen, gure borroka guztietan garaile atera gaitezen.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, dei egin diezaiogun bihotz batez on guztiaren iturri den Jainko Aitari:

- Hemen Jaunaren izenean bildua eta mundu osoan zabaldua dagoen Elizaren alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure herriaren alde, ongizatean eta bakean aurrerapausoak eman ditzan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bidean direnen alde, gaixoen, kartzelatuen, behartsuen eta sufritzen duten guztien alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure senide hildakoen alde, Jaunak bere argizko eta zorionezko erreinuan sar ditzan. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, Jesu Kristo Zure Semearengan eman diguzu egiazko jakinduriaren maisu bakarra eta gaitz guztietatik ateratzen gaituen egiazko askatzailea; eta sendo gaitzazu gure fedearen aitorpenean, hitzez eta egitez Zure egia hots egin dezagun beti eta guztiek jakin dezaten, gure testigantzaz, zugan uste on dutenak zeinen zoriontsu diren. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄.* Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Hona hemen, Jauna,
aldare gainean zure zerbitzarion eskaintza;
har ezazu bihotz onez
eta egizu guretzat sakramentu salbagarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄.* Amen.

Jaunartze ondorengo otoitza

Indarberritu egin gaituzu, Jauna,
gure erospeneke sakramentuaren bidez;
egizu, betiereko salbamenaren janari honi esker,
egin dezagula beti aurrera egiazko fedean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Otsailaren 4an URTEAN ZEHARREKO V. IGANDEA

Agurra

Berari jarraitzera deitu gaituen Jesu Kristoren Espiritu santutzailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Denok nahi dugu bizi eta zorionsu bizi.

Gaur egun, ez dira zailtasunak eta arazoak falta. Kristauok, ordea, badugu gure bizitzaren norabidea, "iparra", zaintzen duen norbait: Jesus. Gure bizitzako zailtasunetan, eta nola ez gure kristau bizitzan izango ditugu zailtasunak: patxadak, ausardiak eta oinarri-oinarrian otoitzak baretu eta gozatu ditzakeenak. Hau guztia, gure bizitza osoa, gogoan dugula ospatzen dugu Eukaristia.

Damu-otoitza

Presta gaitezen bekatari garela aitortuz:

—Jesus Jauna, gure **ba**kea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guretzat **ogi** egin zinena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bizia **ema**ten diguzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

Otoitza

Zaindu familia hau, Jauna, zeure betiko maitasunez;
eta gure esperantzaren oinarri bakarra
zure grazia zerutarra denez gero,
har gaitzazu beti zeure babespean.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Askoren ahotik hitz egiten duen pertsonaia sinbolikoa gerta daiteke Job. Bizitzaren zentzuaz galderak egiten ditu, gizakiari bere burua onartzen lagunduz: ahultasunak gainditu eta gaitzaren aurka eginez. Baina galdera eta zailtasun guztien erantzun baikorra eta egiazkoa Kristogan aurkituko dugu, zalantzarik gabe.

Lehenengo irakurgaia (*Jb 7, 1-4. 6-7*)

Joben liburutik

Honela mintzatu zen Job:

«Borroka da gizakiaren bizitza lurrean,
langilearenak bezalakoak haren egunak.
Esklaboak bezala, itzala irrikatzen du,
langileak bezala, soldata itxaroten;
baina fruiturik gabeko hilabeteak etorri zaizkit,
gauak aspergarriak gertatzen dira niretzat.
Oheratu orduko, esaten diot neure buruari:
“Noiz jaikiko ote naiz?”

Amaigabea egiten zait gaua, jirabiraka egunsentia arte.

Ehuleen anezka-tresna baino lasterrago doaz nire egunak,
amaitu zaizkit ehuleari haria bukatzean bezala.

Gogoan izan, ene Jainko, nire bizitza arnasaldi bat dela,
nire begiek ez dutela berriro zoriona ikusiko».

Erantzun-salmoa (*Sal* 147 [146], 1-2. 3-4. 5-6)

Go - ra Jain - ko - a, e - gin kan - tu, bi - hotz hau - tsi -
ak biz - ten di - tu.

∞. Bai eder gure Jainkoa kantuz ospatzea,
bai gozo hura doinu eztiz gorestea!
Jaunak du Jerusalem berreirikitzen,
Israelgo erbestera **tu**ak biltzen. ∞.

∞. Bihotz-hautsiak ditu **send**atzen
eta haien zauriak **lot**zen.
Izarren kopurua **fin**katzen du
eta bakoitzari bere izena **em**aten. ∞.

∞. Handia da gure Jauna, guztiz **ind**artsua,
haren jakinduria neurririk **gab**ea.
Jaunak zutik eusten die **um**ilei,
lurreraino eraisten **ditu** gaiztoak. ∞.

Bigarren irakurgaia (*1 Ko* 9, 16-19. 22-23)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Berri Ona hots egiten dudala eta, ezin naiz harrotu;
ezinbestean dagokidan egin beharra baitut hori, eta errukarria ni,
Berri Ona hots egingo ez banu!

Berri Ona neure gogoz hots egingo banu, mereziko nuke saria; baina nik nahi izan gabe ezarri didaten eginkizuna betetzen ari banaiz, zein sari zor zait orduan? Hauxe besterik ez: Berri Ona dohainik hots egitea, Berri Onaren zerbitzutik datozkidan eskubideez baliatu gabe.

Gutziz libre naizen arren, guztien esklabo egin naiz, ahalik eta jende gehien Kristorentzat irabazteko. Ahul direnekin ahul egin naiz, ahulak irabazteko. Guztiengana ahalik eta gehien egokitzen saiatu naiz, nolabait batzuen batzuk salbatzeko. Eta dena Berri Onagatik egiten dut, Berri On horretan nik ere parte izan dezadan.

Aleluia (Mt 8, 17)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia

∇. Kristok bere gain hartu zituen gure ahuleriak eta gure gaitzak eraman. ∇.

Ebanjelioa (Mk 1, 29-39)

Homiliarako argibideak

Igande honetako pasarte ebanjelikoak Jesusen bizitzako egun bat nolakoa zen azaltzen digu. Sinagogatik irten zenean, Jesus Pedroren etxera joan zen lehenik, eta amaginarreba sendatu zuen, sukarrarekin ohean baitzegoen; arratsaldea iristean gaixo guztiak eraman zizkieten eta hainbat gaixotasunek jotako asko sendatu zituen; goizean, oraindik ilun zegoenean jaiki zen, eta leku bakarti

batera joan zen otoitzera; ondoren, Erreinua beste herri batzuen hots egin zuen.

Kontakizun horretatik ondorioztatu dezakegu, sendakuntza, otoitza eta predikua elkar nahasten direla Jesusen bizitzako egun batean. Hausnar dezagun Jesusek gaixoekiko duen maitasunaz.

Gure mendeko gizarte-aldaketek sakonki aldatu dituzte gaixoaren baldintzak. Egoera askotan, zientziak sendatzeko arrazoizko itzaropena ematen du, edo, gaixotasun sendaezinen kasuan, gaitzaren eboluzio-denborak asko luzatzen ditu. Baina gaixotasuna, heriotza bezala, ez desagertu, eta ez da desagertu. Giza izaeraren parte da. Kristau-fedeak egoera hori arindu eta zentzua eta balioa eman diezazkioke.

Bi planteamendu adierazi behar dira: bat gaixoentzat beraientzat, bestea gaixoei lagundu behar dietenentzat. Kristo aurretik, gaixotasuna bekatuari estu lotuta zegoela esaten zen. Bestela esanda, pentsatzen zen eritasuna bekatu pertsonal baten ondorio zela.

Jesusekin zerbait aldatu zen. Hark «bere gain hartu zituen gure ahuleriak eta gure gaitzak eraman» (Mt 8, 17). Gurutzean zentzu berria eman zion giza minari, gaixotasuna barne: ez zigorrarena, salbamenarena baizik. Gaixotasunak Jesusekin bat egiten gaitu, santutze bidean lagun diezaguke, Jainkoak malko guztiak txukatuko dizkigun egunerako prestatzen gaitu, negarrik izango ez den bizirako prestatzen.

San Pedro plazako atentatuaren ondorengo ospitaleratze luzearen ondoren, San Joan Paulo II.a Aita Santuak gutun bat idatzi zuen minari buruz, non, besteak beste, honako hau esaten baitzuen: «Sufritzea bereziki bihotza zabaltzea da, Kristoren gizakundean eskaintzen zaigun Jainkoaren indar salbatzaileari bihotza zabaltzea» (Ik. «Salvifici doloris», 23. zk.). Gaixotasunak eta sufrimenduak komunikazio-bide berezi bat irekitzen dute gure eta

Jesusen artean, gurutzean. Gaixoak ez dira Elizako kide pasiboak, kide aktibo eta preziatuenak baizik. Jainkoaren begien aurrean, haien sufrimenduaren ordu batek, pazientziaz jasoak, norbere buruari begira egindako munduko jarduera guztiek baino gehiago balio dezake.

Oroitu ditzagun gaixoak zaintzen dituztenak. Gaixoak zainketak behar ditu, gaitasun zientifikoa, baina itxaropen-premia handiagoa du. Medikuntzak ez du gaixoa lasaitzen medikuak eman dezaken berri on batek baino gehiago. Engainatu gabe egin daitekeenean, itxaropena eman behar da. Itxaropena oxigeno-dendarik onena da gaixo batentzat. Ez da gaixoa bakarrik utzi behar. Erruki-lanetako bat gaixoak bisitatzea da, eta Jesusek ohartarazi zigun azken epaiko puntu bat erori egingo dela, hain zuzen ere, honi buruz: «Gaixorik nengoen eta etorri zineten... Gaixorik nengoen eta ez ninduten bisitatu» (*Mt 25, 36*). 43).

Guztiok egin dezakegu otoitz. Ebanjelioko gaixoak sendatzen ziren, norbaitek Jesusi aurkeztu zizkiolako eta haien alde eskatu ziolako. Otoitzik errazena, denok egin dezakeguna, Marta eta Maria ahizpek Jesusi egindakoa da, Lazaro anaiaren gaixotasunaren inguruan: « Jauna, maite duzuna gaixorik dago» (*Jn, 11, 3*).

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz senideok Aitari, betiereko Jainkoaren Semeari eta on guztiaren iturria den Espirituari:

- Munduan zabaldurik dagoen egiazko Jainkoaren elizarentzat, eska dezagun Jainko-maitasun egiazkoa. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herrietako agintarientzat eta gizakien bizimodua euren eskuetan dutenentzat eska dezagun zuzentasun espiritua eta herritarrak zerbitzatzeko lehia. Eska diezaiogun Jaunari.

—Zapalduak diren ahulentzat eta pertsegituak diren zuzentzat eska diezaiogun Jesus Salbatzaileari. Eska diezaiogun Jaunari.

—Geuretzat eska diezaiogun Jaunari seme-alabatzako begirunea, maitasun leiala eta bizitza zorionsua. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, gure ahuleriak Bere egin eta gure minak elkarbanatu zituen Zure Semearengan agertu diguzu Zure maitasuna; entzun Zure herriaren otoitzak eta egizu, Kristoren antzera elkarbana ditzagula gure senideen sufrimenduak eta lagun diezaiegula sufritzen dutenei itxaropenaren argiaz gogoberotuz. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄.* Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Jainko gure Jauna,
gorputzeko ahuldadean guri eusteko egin dituzu ogi-ardoak;
egitzazu guretzat betiko biziaren sakramentu ere.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄.* Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Oi Jainko,
ogi eta kaliza berean guk parte hartzea nahi izan duzu;
egizu, Kristorekin gorputz berean bat eginik,
eman dezagula pozik betiko fruitu ugari
munduaren salbamenerako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄.* Amen.

Asteartean, otsailaren 6an, Igokundeko Martin presbiteroaren beharrezko oroipena ospatzen du Donostiako Elizbarrutiak.

Egun horretarako Meza Liburuak eskaintzen dituen otoitz gaiak erabiliko dira, Paulo Miki eta lagunuen aurretik Igokundeko san Martinen izena erantsiz.

Otsailaren 11n
URTEAN ZEHARREKO VI. IGANDEA

Gosearen aurkako Jardunaldia

Agurra

Gure babes eta harkaitz dugun Jesus Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Gure fedea agerian jartzen dugu Bataiatuok igandean. Asteazkenean zehar bakoitzak bizi duena, Eukaristian elkarrekin partekatuz eta Kristoren Piztuera ospatuz.

Gaur Manos Unidas erakundearen eskutik Gosearen aurkako Jardunaldia dugu. Eta aurtengoan, denona den lurra zaintzea ere munduko baztertuenei bizitza duinagoa eskaintzeko modua dela gogoratzen zaigu: «Planeta aldatzeko gai den espezie bakarra. Gizakii efektua». Behartsuei laguntzeko asmoari jarraitzen dio erakunde honek eta aintzakotzat hartuko dugu gure otoitzean eta diru-bilketa berezian.

Lourdesko Amaren egun honetan “Gaixoen mundu Jardunaldia” ere badugu. Otoitz egingo dugu gaixoen, eta zaintzaileen alde.

Damu-otoitza

Aitor dezagun Jainkoaren aurrean, barkamen beharra dugula.

- Jesus Jauna, giza sufrimenduarekin bat egiten duzuna: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, sufritzen dutenen itxaropen zarena: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, ondo hartu, sendatu eta salbatzen gaituzuna: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. *R̄*. Amen.

Otoitza

Oi Jainko,
 bihotz garbi eta zintzoengan biziko zarela agindu duzu;
 zeure graziari esker,
 egin gaitzazu zure bizileku izateko gai.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *R̄*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren Hitzak gaitzaren eta gaixotasunaren misterioaren aurrean jartzen gaitu. Jesusek ez zuen axolagabe jokatu, baizik eta sufritzen zutenekin gertuko agertu zen, bizitza bideratuz eta gaitza nozitzen zuena sendatuz.

Lehenengo irakurgaia (*Lb* 13, 1-2. 44-46)

Lebitarrena liburutik

Honela mintzatu zitzairen Jauna Moisesi eta Aaroni: «Norbaiti larruazalean handitua, zornadura edota orbaina ateratzen bazaio, legenarena bezalako zauria sortuz, Aaron apaizagana nahiz haren ondorengoetako apaiz batengana eramango dute. Legenarduna da; kutsaturik dago, eta hala aitortuko du apaizak buruan duen gaitzagatik.

Legenak jota dagoenak arropak urratuak eramango ditu, ilea harro eta aurpegia erdi estalirik, eta “kutsatua, kutsatua!” oihu egingo du. Gaitzak alde egin arte, kutsatua izango da eta bakarrik biziko, kanpalekutik aparte».

Erantzun-salmoa (*Sal* 32 [31], 1-2. 5. 11)

Ez e-gon, Jau - na, ni-gan-dik u - rrun; zu-re - a nau -
zu, za - toz - kit la - gun.

- ∇. Zorionekoa hobena kendu
eta bekatua barkatu diotena.
Zorionekoa Jaunak errurik egozten ez **diona**,
barruan maltzurkeriarik ez **duena**. ☩.
- ∇. Orduan, aitortu nizun neure be**katua**,
neure errua ez nizun ez**kutatu**.
Esan nuen: «Aitortuko diot Jaunari neure **hobena**»,
eta Zuk barkatu zenidan neure bekatuaren **errua**. ☩.

Bigarren irakurgaia (*1 Ko* 10, 31 – 11, 1)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Nahiz jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten duzuela, egizue dena Jainkoaren aintzarako. Ez izan erorbide, ez juduentzat, ez jentilentzat, ez Jainkoaren eliz elkartearentzat ere. Ni ere guztiei gauza guztietan atsegin ematen saiatzen naiz, eta ez dut bilatzen neure ona, bestea baizik, guztiak salba daitezten.

Izan zaitezte nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

Aleluia (*Lk 7, 16*)

A - le - lu-ia, a - le - lu-ia, - a - le - lu- - - - ia. -

∇. Profeta handia sortu da gure artean,
eta Jainkoa bere herria salbatzera etorri da. ∇.

Ebanjelioa (*Mk 1, 40-45, 17-37*)**Homiliarako argibideak**

Gure bihotzaren muina ur bizia darion putzua da. Bizitzak uzten du gugan, ordea, halako tristura eta erremin hondar bat, saldukeria eta erru hondar bat, gure ur garbia iluntzen duena. Sarri nahiago genuke hainbat gauza gertatuz ez balitz. Baina bizitzak ez du atzera bueltarik. Jesusek bakarrik du gure bizitza berreraikitzeko indarra, gure barrua eraldatu eta garbi eta berri uzteko gaitasuna.

Jesus ausarta da, eta hautsi egiten ditu bere garaikideen tabu erlijiosoak, kutsaduraren beldurrez bazterketa sortzen zutenak (*Lb 13,1-2.44-46*). Jesusek ez du kutsatzeko beldurrik, ez da kezkatzen legendunarekin topo egitean zikindu daitekeelako (*Mk 1, 40-45*). Berak ez du legendunenagana gerturatzeko beldurrik, eta haiek ere lasai hausten dute inorengana ez gerturatzeko debekua, Jesusengana hurbiltzeko. Handia da Jainkoaren Erreinuaren etorrerak ekarri duena.

Gizartetik legendun izateagatik baztertua izatea, heriotzara zigortua izatearen parekoa zen. Nola sendatu, senda zaitzakeenarengana joaten uzten badizute? Gizarteko bizitzan

gehiegi darabilgu tamalez, medikuen hizkerako esamoldea: erauztea, errotik ateratzea. Eta hori gure senide askok bizi duten bazterketa gordinean antzeman daiteke.

Gure zentzugabeko beldurrek ez digute uzten elkarren bakean bizitzen. Bestearengan gure bizitzarako eta ongizaterako mehatxu bat ikusten dugu. Gaixoengandik datorkigu batzuetan mehatxua, behartsuengandik bestetan, edota etorkinengandik nahiz beste erlijio bat bizi dutenengandik. Zoriontsu izatea galarazten diguten beldurrak dira, gizakia gizakiaren kontra jartzen duten beldurra. Paulok irakasten digu guztiengana, gure garaiko kultura desberdinetara nola gerturatu (1 Ko 10, 31-11,1).

Antzinaroan Jainkoak bekatuengatik emandako zigor moduan ikusten zituzten honelako gaixotasunak. Jesusek berriz, sufritzen dutenekiko gertuko agertuz bere egiten du haien sufrimena. Berak beregain hartu zituen gure gaixotasunak eta gure bekatuak. Legenardunaren eskabideari ez dio aurre-baldintza edo eskakizunik jartzen. Sendatu egiten du, legenardunak sendatua izan nahi duelako eta Jesusen indarrean konfiantza duelako. Sendatu ondoren esaten dio Legearen arauak betetzeko, berriz ere gizartean erabat integra dadin.

Gure beldurrak eta kezkek dira askotan geldiarazten gaituztenak eta familian, elkartean eta gizartean erabat integratuta bizitzea galarazten digutenak. Gure gordelekuan ezkututzen gara, zauriei begira, aurrera begiratu ordez. Barruko legenar hori sendatu eta salbatuen elkartean txertatuko gaituena behar dugu.

San Paulok gizon-emakume guztien senide garela oroitarazten digu eta ez dugula besteen zoria ahaztu behar gure fedearrekiko eskandalagarri gertatuz. Manos Unidas elkatearen aurtengo goiburua hau dio: «Planeta aldatzeko gai den espezie bakarra.

Gizaki-efektua»; horrek ikusarazten digu munduaren zaintzak behartsuak erdian jartzera garamatzala, guztien bizi-baldintzak zaintzen saiatuz. Eska diezaiogun Jesusi gaurko Eukaristia honetan senda gaitzala gaixotasun orotatik eta egin gaitzala munduaren erdian bakearen eta adiskidetzearen bitarteko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Jainkoaren Hitza entzun ondoren, eta eukaristiako otorduan parte hartu aurretik, egin diezaiogun otoitz Jaunari, bere maitasun Espiritua gugan eta gizaki guztiengan isuri dezan eskatuz.

- Elizak, Maisuaren irakaspenari jarraituz, Jesusen agindu berria leialtasunez bete dezan: “Maita ezazue elkar, nik maite izan zaituztedan bezala”. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herrietako gobernuek, gizaki guztien eskubideak justiziaz eta leialtasunez babestuko dituzten legeak bultzatzen beti. Eska diezaiogun Jaunari
- Gure gizarteko “legendar” berriak sufritzen dituzten era askotako pobre, apal, eta baztertu guztiak, Elizaren lehentasun izan daitezen behartsuekiko bere egitekoan eta zerbitzuan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Manos Unidas-en misioa posible egiten duten guztien alde, Kristoren maitasunak haiengan distira egin dezala eta gizadi guztira zabal dadila. Eska diezaiogun Jaunari.
- Biziaren ogi bera jaten dugun Kristoren ikasle guztiok, ager dezagula gure egintzetan bat egiten dugula haren irakatsi eta ezaugarriekin. Eska diezaiogun Jaunari.

Gure Aita eta Jauna, sutu gure bihotzak zure maitasunaren Espirituarekin, bihotz zintzoz senideengan maita zaitzagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Diru-bilketa egitean

Egitera goazen diru-bilketa, “Manos Unidas” erakundearen proiektuekin bat egiteko izango da. Pobreziaren aurkako ahalegin honetan saia gaitezen guztiok eskuzabal izanez.

Oparigaien gaineko otoitza

Eskaintza honek, Jauna, garbi gaitzala eta eraberritu;
eta zure nahia betetzen dutenentzat
izan dadila betiko sariaren iturri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jauna, zerutar ogi osasungarria eman diguzu janari;
egizu, bila ditzagula guk ere beti
egiazko bizia ematen diguten ondasunak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

